

**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
93n. ZENBAKIA
URTERRILLA
1986**



SESTAO

ZERTARAKO TA ZERGAITIK

Nire ustez Franco'ren gure aurkako guda aurretik egin zan idazkirik onenatarikoa "Kristiñau-ikasbidea" izan zan.

¡Zelango joskera ta atzizkiak erabilteko trebetasuna!

Nik sarri-askotan euskal irakargai onenatarikoa irakurteko, idastitxo au eskuetan artu, idegiten dut.

Beton datorren "Aita Gurea" aukerakoa zan Bizkaiko erriarentzat. Alan eta be, aldatu egin eben. Zegaitik? Osotuz gipuzkera batasunera elduteko.

Eta Aita Gure orretan erriaren arritasunez *zaranak bezalak* eta *takoak* sartu euskuezan Gipuzkoa'ko Villarreal Urretxuan euskaldun teologak.

Baiña zer egiten eben an egozan Bizkaitar kokoloak? Isillik egon, oi-dan lez. Bizkaitar bildurti kemenbakoak Giputzen aurrean ez dira gauza ezetz esateko-eta.

* * *

Nire lagun Bizkaitar buru argitsu bat egoan an, eta nik esaten neutson nire ondoan bizi zanean: Baiña zuok Bizkaitarrok zelan itzi zenduen guk ain ederto ipiñita geukan "Aita Gurea" aldatzen, bertan gure belarrietarako berba ez egokiak sartuaz?

Lenengoz asi ziñien ezarten "Gure Aita" "Aita Gurea"ren ordez, jakin barik, Bizkaian beintzat, Zamarripa'k diñoanez jabe-izen lagunak izen ostean ipiñita samurtasun geiago daukala.

Gero "zarana" aditza "zagozana"ren ordez.

Jakin bear zenduen Bizkaian "zarana" otzara lango bat dala soloetatik bedarra abereentzat ekarteko. Zagozana kenduteko teoloji arrazoi oker bat erabilten zenduen Jainkoa dala toki guztietan esanaz. Baiña teologuak jakin bear dau zerua esaten danean gauza bi ulertu bear doguzala: egoerea ta tokia. Eta otoi egiten dogunean Aita Gurea Jaungoikoa ikusten dogu Aita gustiz altsu lez zeruko tokian.

Olantxe diño be Leonardo Boff teologu ospetsuak. Orregaitik "zagozana", ta ez "zarana".

Eta guretzat barregarri dan "bezala" zegaitik esan bear dogu, guk, berba egokiago lez?

Eta ederto esanda dagon "eguneroko" ordez, zegaitik esan "egun ontako"?

Benetan niretzat gure Euskera ederrak daukon atzizkirik motzena da takoa... Orain zazpi edo zortzi urte dirala idazki bat argitaratu neban nik iñoana: "Erri edo Laterri batekun eskatzen dauala izkuntza batua? Baiña zegaitik, zetarako? Belgika eta Suiza'k bi iru edo lau izkuntz guztiz ezbaridiñak euki arren ez ete daukie erri alkar batua ta maitatua? Eta Euzkadi'n Euskalki anaiak bakoitxa bere buru jabetasunez, beti alkar begiramenez eta gizabidez, ez dogu maitatuko geure Ama emonkor eta ona?"

Ori bai: izan leiteke euren arteko batek beste anaien baten lepotik ta oneri kalte egiñez, erronka ta eupadaka asarrea ta burruka sortutea... Entzun daigun Latiegi'tar On Bizente'k oraintsu argitaratu dauan Oñatibia'tar On Dunisi'kin baterako idazti eder andi baten diñoana. Neuk euskeratuko dot orain arek erderaz liburu orretako 251 orrialdian ta 23'n oarpidean diñoana. Euskaltzaindia, El batua y la muerte del Euskera liburuan. "Euskalerriko jakintsuei euskera batua egiteko asmoak sortu yekezan euren adimenak erderaturik eukezelako, ta euren erderaren batasuna gure Euskercari ezarri gura eutsoen. Eta olan ebiltzan alegiñak egiten. Eta olan saldu ta galduten euskuen Euskerea. Era orretan bide okerrez eta saltzaillez, saltzaille ta ezjakiñek zireala ez jakiñez jakin barik Euskerearen batasunera ibillera egiten asi ziran. Baiña Euskadi'k ez dauko batuaren bearraldi premiñik, euskeldunek euren artean alkar ulertuten diralako. Euskerea beti izan dan lez orain arte ez bardiña, berez, jatorrez zelan edo alan ikusten dakielako. Eta augaitik, Euzkadi'n erriak ez deritxo ondo batukeri orreri. Batasunean ez dau ipinten ardurarik, ez dau ontzat artzen.

Jakintsuai ezin leioe erraz parkatuauan ez jakitea Mundu zabaleko izkuntz filosofoena ta literaturan onena Gerkar "jatorra: zala ta onen antzera, Euskerea ez dala bardiña, lautarikoa baiño".

URTE BARRIA (1986)

Asi dogu urte barri bat eta goazen aurrera. Emen ez dago gelditzerik. Errekako ura itxasorantza doan antzera gizadia be bere elbururantz doa barruko indar berezi ta eskutu batek eraginda.

Urte barriak arazo ta zeregin barriak dakaz zalantza barik eta arazoan aurrean azterpena egin-bearra daukagu.

Begiratu dagiogun gaur IPAR-ATLANTIKUKO ALKARTEAREN ERAKUNDEARI (I.A.A.E.).

Urte batzutako eztabaidea izan dogu Alkarte orretara sartu ala ez, beti lez euskaldunok eritxia emoteko era aundirik izan barik, laterriko agintariak edo geiengoak bear-tuta.

GUDEA KONDAIRAREN LEGENA

Zori txarrez, gizadiaren kondaira, guden kondaira da geiena. Gizonak ez dau lortu bakezko alkar-bizitzea munduan. Antxiñako laterri zarrak alkarragaz gudaketan ibiltzen ziran eta orantsuko laterri barriak Europan, gudaketan jarraitu dabe, edo mugak dirala edo ondasunak dirala edo erlejiñoa dala edo alkar-laguntzak dirala, beti gudaketan.

Baiña gure egunetan, azkenengo gudaldian kizi-lerkaiak lertu ziranetik batez be, gudarako bildurra be sortu jake gizonai eta bildur ori sendoago izan daiten eta guda-arriskua urrintzeko or dira areik baiño askoz kaltegarriak litzakezan lerkaiak gertu.

NORBERA ZAINDU-BEARRA

Gaur iñok ez dau esaten, esan ez beintzat, beste laterri bat azpiratzeko izkilluak bear dauzanik, baiña bai norberaren burua zaintzeko izkillu aundi ta indartsuak bear dirala. Eta or dabiltz, batez Errusia ta Laterri Batuak zein geiangoan izkillugintzan. Norberaren burua zaintzeko eta gudaren bat sortzen ba- da, babesa izateko.

ERAKUNDEAK

Norbera bakarrik norberaren buruz zaintzeko naikoa ez dala uste izannik, gudarako edo zaintze ori lortzeko alkar-teak sortu dira, bi batez be ezagunenak: Barsobia'-koa alde batetik eta Ipar-Atlantikukoa bestetik, eta erakunde bi oneik izkilluz ondo orniduta dagoz, badaezpada.

Eta izkilluen norgeiako au bildurgarria da benetan. Lengo gerratean izandako lerkai areik baiño askoz indartsuagoak eta kaltegarriagoak litzakezelako gaurko oneik.

Or daukaguz ba erakunde aundi bi orreik guda ikaragarria sortuko ba- litz izkilluz ondo orniduta, munduari bake txar onetan iraun-azoten.

AUTESKUANDEA

Urte Barri onetan eta asierako illeetan, antza dagoenez, Ipar-Atlantikuko Erakundearen Alkarte orretara sartu ala ez erabagiteko auteskuandea izango da. Len ezetzer a egozan laterri-agintariak on baietzera daukaguzala.

Eta euskaldunok zer?

Auteskunde orretara sartu eta geure eritxia emon bear-ko dogu.

Alde batetik Europa'tarrak gara eta ori ezin ukatu daikegu, baiña beste alde batetik geu txikiak izanik aundiakaz egiten dan itunagandik ezin daikegu itxaropen aundirik izan. Ba-dakigu, gaiñera, alkar-te orretan sartuta dagozan batzuk zelako laguntza emon euskuen eta zelako jokabidea izan eben gugaz, geure buruak estualdian ikusi genduzanean.

Ete dira, gaiñera, bakea egiteko bide egokiak gudarako egiten diran gertakuntzak? Ez ete litzake bide egokiagoa izango gudarako izkillutegiak sortu barik, bakerako alkar-tasunak sortzea? Izkilluen bakea baiño sendoagoa ez ete da bakerako egiten diran itunen bidea?

Europa baketsu baten kideko izan gura genduke, ego-kiro eratu ezker alkar-azokearen Europa-n kideko, baiña gudarako gertakuntzak eta alkar-teak alde batera itzi eta eztabaidak eta larrialdiak berbaz konpontzen eta bideratzen dauzan Europa'ren kideko.

Auteskunde aurrean zabalkundea ta bultzakadak ugarri izango dira. Guk zentzunez eta Euskalerrriaren ikuspegiagaz aztertu dagigun arazoa eta artu bear dogun erabagia artu, emon bear dogun autarkia emon; naizta ondo jakin gure autarkien indarrak ez dauala aldakuntza aundirik sortuko, ikusi dagiela gitxienez gure pentsabidea ta jokabidea zeintzuk diran.

Goazen Europa-ra, bakearen eta artu-emon egokien Europa'ra, ez izkilluen eta guda-arriskuen Europa'ra.

Izan daitela ba, urte barri au erabagi zuzen eta argien urtea, egite sendo ta onurakorren urtea, bakearen oiñarri izango dan *urte barria*.

LOTAZILLA'KO EGUN GOMUTAGARRIAK

Idazpurutzat artu dogun Lotzallia'n izena, beste era bitara be idatziten dabe beste askok; latiñetik datorren Abendua eta Gabonilla, bearbada illa onen azken aldera doguzalako kistarrok batez be gomutagarrien doguzan Gabon-jaiak, urte-azken dogun Gabon-zarrak eta abar.

Guk, baiña, Sabin'en jarraitzaileak izanik, urteko amabi illeen izenak, berak lurraren eta beraz baserritarren jokabideetatik artuta, beste iñork baño sentzun geiagoz idatzi ta egutegiratu zituan ezketiño orretaraxe idatziko doguz, nai edo ez, "el batua"ra beartzen ez gaituen arte.

"Lotazilla"izena ziurki sortuko eban Sabiñ'ek, aldi onetan Izadi guztia, Ipar-aldekoa beintzat, dana aurkitzen dalako lotan eta, beraz, Euzkadi'ko lurraldeetan zeregin gitxien dagon illa dalako bera.

* * *

Lotzil onetan, ba-dira orraitino zeregin asko beste arlo batzutan: Txindi-etxe aundietan, landola ta alkarte ajolatsuetan eta abar, urteko zalantzak (balances) egiteko, naita oraingo tramankuluakaz askotzaz errezago ta lasterrago egiten dabezan, zenbatza zuzen orretan dagolako euren irabazte aundia.

Kistar-zaleok, egiazko Kistarrak ba-gara beintzat, beste zeregiñik be ba-dogu Lotzil onetan; Azterketa sakon baten bearra, lenago aipatu doguzan Gabon-jai gomutagarri orreik paipin da sarri-askotan arrokeriz ospatzea baiño garrantzi geiago daben egin-bearrak. Lenen, kistar-zaletzat geure burua daukunok, orokar edo katolikutzat burua daukunok ea zer egin dogun eleiz-

erakunde barruan. Bear-izenean aurkitzen diran geure urkoai lagunduaz, Eleiz-erakundeak dituan beste zeregin askotan eta abar.

Eta, urren, gure Aberria'ren bearkuneko arlo zabal-letan zintzo jokatuaz: Euzkera ikasi landu ta irakatsiten, euzko oiturak eta edestia aditaldu ta zabalduaz euzko jakintza aberastuten, eta, besterik ezean arlo orreik onduten geien aleginduten dan Euzko Alderdia'ren inguruan bat geiago lanerako izaten aleginduaz. Bada, edozeiñek dakian lez, zeregiñik asko daukagu euzko arlo guztietan, egin nai dogunak.

* * *

Gure idazlantxu onek argia ikusi dauanerako, urteko jairik gomutagarrien orreik igarota egongo dira, batzuk bear dan baiño obeto, beste batzuk ez ainbestean ondo, baiña ondo, eta, beste askok, millakak ea milloikak, jaiodiranik geiago daben gosea asetu barik.

Zelan izan leiteke gizadi onetan orrenbesteko aldakuntza? Ez dago salakuntzarik, orretaraxe aurkitzen da eralduta gu bizi garan lurbira au: guztiz bardinge.

* * *

Il onen ostean etorriko jakun Urtarrilla be ordurako joana izango danan antzerako izango dogu, astitsua eta, beraz, izango dogu aldia aipatu doguzan azterketa sakonak egiteko aldia, bear dan lez, nai badogu.

ALTUNA'TAR JOSU

GORROTOA

Euri otz, luze batek bete deusku eguna,
lertu egin baita edoien sabel lizuna.
Bildurraren enparantzan oro da negarra
ausia dalako gorroto-ontzi zakarra.

Badatorkigu gaua, baltz, illunak jario
—izar argiuztuek uraldian erio—
bere bekokiko izerdiaren izua,
goitik datorkon gorroto mordoan zukua.

GORROTO, GORROTO: aizto punta pozoitua,
zulotu egin dituk lurra eta zerua,
bizienaz erdoitu maitasunen barrua.

Moztu egin dituk egunabarraren oinak,
odolez gorritu eguerdiaren larrainak,
ertsi nai dituk betiko barrearen zainak.

BETIKO LOA

Neure egunok badoakidaz geldi-geldi
ta eurokin batera apurka esperantzak.
Bildurraren ate baltza laster yat igidi.
Bai ete abarorik bestaldeko baratzak?

Ez dakit ba dauan orririk ango zugatzak,
erremu gorria ete dan ala belardi;
baña, bai itunak sarrerako txilin otsak.
Poza odoluztutzen aieneka irudi.

Oñak dardar, geldi guran, aurrera bear au!
Ba dantzut bidertzeko ixillen asperena,
ur-ur dakust illunek landutako soloa.

Arresi onen barruan beti ete da gaua?
Berarenik ezer ez dakit: doi-doi izena,
illek ondo gorde baitaroe euren loa.

A. BIDAGUREN

KARL RAHNER'EN ERANTZUNAK (Sarrera)

Idazti txiki onegaz jazorikoa diñogu ondoren: Uri aundi baten abade bat egoan gazteen pastoral-lanari ekiten eta bere gazteai idatzi egioela eskatu eutsen. “Nik ez daukat errurik —diño berak— euren aurrean goratu nabelako eta nigandik bear zan baiño geiago itxaron-erazo dautselako. Leuntasunez, baiña indarrez beartu ninduen eskutitz onei erantzuteko edo beintzat alegiñak egiteko”.

Eskutitzak egizkoak dira. Gazte oneik idazten dabena dana, eurai eragiten dautsena da. Eskutitzak ezelako ebagite barik bir-idatzi dira, bialtzailleen ize-nak iñoz aldatuta.

Emen garrantzia daukenak, nire erantzunak barik euren esangurak dirala uste dot eta beste gazte batzui, baita pastoral-langilleai, gurasoai eta irakasleai argia emongo dautse gazteai zerk eragiten dautsen ikusteko.

Orregaitik, irakurlea ez litzake mugatu bear nire erantzuna gogora ekartean, gazteen eskutitzetatik zerbit ikasteko alegingu baiño.

Jakiña eskutitz oneik inguru zeatz eta mugatuan idatziak dira. Argi ikusten dogu idazleak ez dirala gazte gosetiak edo droga-inguruan pozoitu ta edenduak. Idazten dabena norki ezagunak dira, geure inguruan dabilzanak eta euren buru-auste ta arazoak antzeko egoera larrietan dabilzanentzat oargarriak.

Nire erantzunak ez dira orrelako eskutitzetan sortzen diran eztabaida-gaiak erantzun osoak emoteko. Jazoten dana auxe da: Gazteak, eurak daukezan edo euren bizitzan asmatzen dabezan itaunak ezarri ta aurkezten dabez. Orregaitik, emen esaten dana oso mugatua da eta itaunen parean osotu bako.


Ez nago ziur gazte onein gogo-erara edo euren aldera ondo egokitu nazen. Nik kristiñau lez emoten dot erantzuna, baiña ez eskutitzak, eta gitxiago nire erantzunak, ez gara eltzen Kristiñau-Mezua dan Barri Onaren azkenengo sakontasunera. Onetan osotu-bako jakituna naz.

Eskutitzak osoan ez ba'da be, geienean, giza-arazoan inguruan dabiltz, gizatasunak aurrean dau-

kan izakera berezi baten aurrean, eta or agertu bear da Jesus'ek iragarritako Jainko biziaren barria. Alan eta guztiz be, gai onei buruz gazteakaz berba egin bear nebala uste neban, dakargun edo ekarri geinken guztia gizabidekoa dala-ta, gazteai biotz-ikarea emon barik.

Eskutitz onei gogoz erantzun dautset, lan au neure lanbidetik zeregiñetatik urrin dagoala ba'dirudi be. Eta erantzutean neuk be zeozer ikasi dodala uste dot. Irakurleak be bear ba'da ori igarriko dau eta noiz-beinka nire erantzun laburretatik zerbait ikasten ba'dau obeto.

KARL RHANER
(Letona'k euskeratua)



Karl Rahner Jainko-Iztilari edo teologu alemana da, oso ezaguna gaurko eleiz-giroan. Gazteen eskutitzai erantzunez egindako bere liburu bat argitatzen dogu emen zatika, aita Letona'k euskeratuta.

GUZTIORI ZORION

GUZTIORI ZORION

Olazar-tar Martin idazle begiko
ta, argiari, oroitzapen bidez.

“Dringilin dron, gaur Gabon”
eta, Guztiori Zorion”.

Gabon da bai ta, dringilin dron,
lapiko artean andrea
sukaldari, orain ta, bertone;
emen olio, an koipea,
itxasoko ta legorrekoz
ongiro ospatzeko Gabon.

Sukaldeko eltze, lapikoz,
lurruna emendik ta, andik,
ontziak sutan dagoz borbor
ta, pilpilka, mairako asmoz,
ainbat jakigai atseginkor
usain ederra edaturik.

Badakizu ene maitea
batzuentzat makallua eder,
besteentzat bixigu, lebatz
edota aragi ta piper,
Zein gatxa dan gatz ta berakatz
danon gogo, egitea!

Baiña, orra, berein guleriz
maia antolaturik ta, apain,
andrazko esku on, mirariz,
Maikoak, orain ez lo egon!
Otoitzak lenengo eta bein
ta, ondoren asiera emon
Iainkoaren esker ta graziz.

Beraz, Zorioneko etorriz
etxeko babespe, bakean,
sendi alkartze maitagarritz,
osasuntsu: “ON BEDI JANAK
(ta, iñoiz) GAITZIK EZ EDANAK”
bizitzeko aldi luzean
alaitasunezko lokarritz.

.....
1985eko Gabonilla.

UDAZKEN IKUSPEGIZ

Orrien nabardura, margoekaz
tindatu da ortzi esparrua
ta, Udazken aize boladakaz
buruzberatuak, banan banan,
gainbera dator lengo mundua
orritz orri, etsipen betean,
orbeldura zimel, maskalakaz
etzuteko lurraren ganean.

Arro dabillen aize egoaren
indar, arrapalada egoeran
odeiak, igeskari dakustaz
naastuak, arinketa baten,
eguzkia, azken dirdirakaz,
murgiltzen danean itxasoan,
ainbat odeiño gorriakaturen
agurrezko begiradapean.

Aizearen eragin ta, ikutuz,
lirikoitasun neurri, izariz,
zugaitzak, illuntze loaletuan,
tikili-takalaka dakusguz
ots aundiko eresiak ixuriz
itxasoa, ugin ta kaiokaz,
bakoitza beren ibil-bideetaz
etzutera doazen bitartean.

.....

ALDAKORTASUN

HERMANN HESSE
(Nobel Saria)

Nire bizitz zugatzatik
jausten da orritz orri.
Oi, zoramenezko mundua
zelan asebetetzen,
zelan asebeta ta nekatzen
zelan gaituzun mozkortzen!

Orain bertan loratan dagona
laster da zimeltzen,
laster oskatuko da aizea
nire illobi arre ganean,
ume txikiaren ganera
makurtzen da ama.

Barrero ikus nai dodaz aren begiak,
aren begiradea da nire izarra,
gañontzeko oro aldendu leiteke,
dana ilten da, dana gozoro ilten da.
Bakarrik geratzen da Betiko Ama
arengandik gu gatozana.
Aren atzamarrak, jostakor idazten dabe
gure izena aize igeskorrean.

..... Muniategi-tar Sabin.

GOSEAREN AURKAKO EKIÑALDIA

Urte guztietan lez, zezeillaren 7'an Gosearen aurkakoa dan ESKU-ALKARTUAK ALKARTEA'ri laguntzeko barau eguna izango da. Barau au egitera ez da beartzen lege ta arauen bidez, baiña bakoitxak bere gurariz, egun orretan janarietan gitxigo eralgi eta gose diranen laguntzarako aurreratu dauna edo geiago emotea eskatzen da. Gauza ondo pentsatua da, ondo jan eta edan egiten dogunok, gosez bizi diranak aitzu ez dagiguzan.

Eta zezeillaren 9'an ekiñaldi orreri dagokion diru-batzea egingo da, bai eleizetan eta bai orretarako idegita dagozan ESKU ALKARTUAK'en diru kontuetan.

* * *

ESKU ALKARTUAK egoera larri baten aurrean sortu dan salaketarako bidea eta laguntzarako eskaria da.

Ekintza onek atzeratuta dagozan lurraldeetan nekazaritzari, osasun-lanari eta jakintza-giroko ekiñaldiai emoten dautse laguntza. Olako lurraldeetan artzen diran eginbide edo proiektuak iru urteren barruan amaitzen dira.

Laguntza au irugarren mundura zuzen joaten da, ezelako bitarteko barik. Sarritan inguru areitako gobernua dirua emotea galtzeko bidea izaten da eta jokabide onek arrisku ori zearo alboratzen dau, gobernua ezelako laguntzarik eskuetan jarri barik.

Batzen dan dirua, urterik urtera, zorionez, geiago da eta lan orretan diarduenak orretan pozbidea dauke, naizta bearrizanak ain aundiak eta zabalak izanik, egiteko gertzen dana samintasunez eta nekez beteriko mundu aundi ta zabala izan.

* * *

Munduan dan gosearen arazoak urtebidea ba-daukala guztiok dakigu eta urtenbide ori ez da besterik dagoana guztien artean banatzea baiño. Sortaldean daukagun larrialdia konpontzeko ez daukagu eskubiderik irugarren munduko beartsuai eurena dana kentzeko. Baiña orretarako mundu zabalean diran txiroak euren abotsa entzun-erazoteko bideak bear dabez.

* * *

Eun milla dira mundu jakitun onen barruan egunero gosez ilten diranak eta milloiak bizi-eziñik dagozenak. Ori gizadiarentzat eta gu guztiontzak gauza lotsagarria da. Lotsari orrek eta barru-miñak eraginda sortu da gosearen aurkako ekiñaldia, aurtan XXVII- ez egiten dana.

Arlo orretan, jakiña, diru-laguntza eskatzen da, baiña ez da ori dana. ESKU-ALKARUAK igazko ekiñaldian dirutza aundia eralgi dau, 1.143.812.053, baiña batez gosearen iturriak kentzen alegindu bear gara, gizarte, jakintza, ekonomi ta politikako-arazoak argitu ta bideratuz, andra eta gizonen norberekeria alboratuz eta ori guztion burruka ta ekiña da, ez gitxi batzuren. Erakundeak, lenengo, almen aundiagoak daukezelako, baiña guztiok eta bakoitxak arazoa argi ikusi eta konpontzen aleginduta, esku alkartu askoren lana orretarako ezarrita. Orregaitik artu da aurtengo zabalkundearen esaldi nagusi lez "Gosearen aurka... guztion burruka".

1985'eko ekiñaldiak 117 eginbidea bete dauz Afrikako 28 errialdetan, Etiopia'ri estualdiko laguntza berezia emonez gaiñera eta beste 297 eginbide Ameriketako 16 errialdetan, 162 eginbide Asia'ko sei lurraldetan. Ori ikusita adoretu gaitezkan laguntza-bide zabal onetan kideko izateko.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK



Afrikako lurralde legorretan uraren billa.

MARGOLARIAK EUZKADI'N

1910n.urte-inguruan, Euzkadi'ko margo-ertiaren barrikuntzan aurrelari bi il ziran: Ginea'tar Anselmo 1906n'ean eta Giard'tar Adolfo 1916n'ean.

Ginea'tar Anselmo'k ez dau urrin itzi XIX mendeko berarizko margo-ertia, baiña Erroma'n egoniko bere urteetatik erneten jako margo argitsua durundu ikusgarriakin barrizaleen bide edo modernismoaren alde urtengo dana.

Giard Paris'en bizi izan zan eta an ezagutu eban "inpresionismo" edo zirrara-bidea. Margolari nagusienetari-koa izanez gaiñera "Jakituna Barre-Eragille" izatera eldu zan. Ez diñot zirrara-zale izan zan ala ez. Giard'ek ez eban iñoz alboratu marrazkirik, ez eta argi urtutsuaren inguru-mingururik, zirrarezaleak oi daben lez.

1913n'ean Regoyos'tar Dario il zan, jatorriz Asturias'koa, zaletasunez euskotarra.

Dario'gaz asi zan España'tar margo baltza eta oraingora eldu da Belgika'tarren literatura ta margoaren bidez irudiaren eta ameslarien munduan murgilduta.

Azkenez onek be zirrara edo "inpresionismo" a onartu eban eta trebe bide onetan ainguratu zan betiko bere margo-ertia.

* * *

XIX gizaldiko irugarren zatian jaio ziran margolari euskaldunen leiñu entzutetsua osotzen dabenak. Guzti oneik euren margo-lanetan ziarduen XX eunkidako lenengo zatian: Iturrino, Etxebarria, Zuloaga, Zubiaurre anaiak, Telletxea, Arteta, Arrue'tar Alberto. Margolari-talde ospetsua egiten dabe oneik.

Aurreko margolari-talde europatarra ta euskotarra bardiñak ete dira?

XX mendea sortu zaneke, Europa'n, 1909n.urtean Etorkizun-agerkaia (Manifiesto futurista), 1917n.urtean "Dada Agerkaia", 1924n.urtean Breton'en Agerkai surrealista agertu ziran. Alan eta guzti be ezin lei ziurtatu, ezta lorratzez be, alkar-jokorik 1910'eko eta 1930'eko euskal margoen eta aitatu doguzan Aurrera-zale margolari Europatarren artean.

1907n.urtean Pikaso'k bere "Señoritas de Avigñon" margotu eban. Lauki margotu onek lengo margo-ertiagaz austurea oskatzen ei dau. XX eunkidaren azkenean eta XX'aren asieran ez da agertzen lauki orregaz alkartasunik daukan ezer.

Anai-arteko guda osteko aldia gogorra izan zan bakartade ta jakin-ezagaitik, munduko II gudeak kalte ta zauri aundiak ekarriko ebazan-eta. Guda aurreko euskal margoaren ondakiñak amatau ondoren, lotsaz "Atxuri"ko Erti ta Lanbide-Ikastegian ikasle izan ziran ertilari gazteen

egintza erne zan: Maidagan'dar Fernando Largatxa'tar Santa Fe, Lorentzo Solis'tar José, Roberto, Rodet, Albarrez eta Ajuria'tar Matias eta beste batzun artean berrogei garren urteetako Talde Suiza'tarragaz batu ziran Aroste-gitar Juan, Zubigarai eta Kintana'tar Jose.

Suiza'tarren Taldeak zeregin aundia euki eban aldi aretako margolari ta margo-zale Bilbo'tarrakaz alkartasuna egiteko.

1945n.urtean Talde Suizatarrak Bizkai'ko Ertiliarien Alkarteari zabaldu eutson bidea eta onek eginkizun txalagarri bat bete eban: Erakusketak antolatu, marrazki ta margo-ikastaldiak emon, aldizkari bat argitaratu eta orduan asten ziran margolari gazteai babes ta laguntza emon.

Gizaldiaren lenengo berrogei urteetan kultura-saillan ertibideko galtzea oargarria izan zan.

Berbizkunde bat agertzeko, gauza barri bat eldu zan gugana barrogeiko urteen azkenean: Studio Aretoa. Emen egin ebezan euren erakusketak Oteiza'tar Jorje'k, Ibarrola'tar Agustin'ek, Stefanek eta berton emon ebezan berbal-diak Blas de Otero'k, Zelaia'tar Gabriel'ek eta beste batzuk.

1945n.urtean sortu zan Bilbo'ko Zugaztian dan Era-kustetxea edo Museoa, Erakustoki onek ainbeste zor dau-tso Saratxo'ko Urtado'tar Lorentzo jaunari. Onen alegin eta biotz zabalagaitik egin zalako. Orregaitik omenezko lendakari izendatu eben eta orretan jarraitu eban il arte.

Gogo barri onen alde asi ziran agertzen Erti-Lanen Alkarte Bizkaitarra'ren ondoan sortzen ziran ertilari tal-deak. Orregaitiño, 1948'an Oteiza'tar Jorje Bilbo'ra etor-tea dunbada bat lez izan zan eta eztanda eragin eutson asi-kerako gogo-ibillereari zeru-muga barrietara bultzatuz. Oteiza gure artean igarle, buruzagi eta agintari baten an-tzera agertu zan eta berak bere erriaren ibillaldia lur-eskiñita lerrokatu eban asmakizun eta nortasun aundiaz.

1963'an QUOUSQUE TANDEM bere idazti ameskor eta oargarriagaz durundu indartsua atera eban. Oteiza'gaz asten dira Bilbo'n guda-osteko gogo ta adimen-indarrak. Irurogeiko urte orreitan ertilari barrien ikuspegia sendotu egin zan.

1965'ean Euskal Eskola Talde onek sortu ziran: GAUR, Gipuzkoa'n, EMEN Bizkaian, ORAIN Araba'n, DANOK Naparroa'n. Erti beartuaren urteak dira.

1970'ean Erti Ederren Ikastola Nagusia sortu zan Bil-bo'n eta 1982n.urtean Euskalerriko Ikastetxe Nagusiaren Ikas-Saille izatera eldu da.

LAPIKO AUNDI BAT

Liverpul'tarrak ospetsu dira The Beatles abesbatza, futbolariak eta 10.000 alda-gaillu edo erregistro daukazan organu andia dirala-ta. Euskaldunok be entzutetsu gara geure futbolari, txirrindulari abesbatz (Bizkaian bakarrik 32 gitxienez dira urtero epailean Begoña'ko Ama Birjiñari abesten doazanak) ta erakunde eratzaille itzelezkoak egiteko trebeak garalako.

1984'ko Abendua'ren bederatzian, domeka egun baten, sekulako babarruntza ziurrez markea ondu dauana eratu zan. Babatza andi ori egosteko antolatzaillak iru edo lau illebete aurrez asi ziran iru mille kiloko lapikoa egiten, 2.300 txopin litro sartzeko. An egoan batek diñoanez, egiz eta egitez Durango ondoko erritxu Yurretan Abendua'ren bederatzian eratu zan *txarriboda* babarruntzan iru marka ondu zirean.

Lenengo, eguraldiarena, zero urdiña ozkirotxu baiña aize barik, egun ederra. Esan geinke Jainkoak be ontzat artzen ebala euskaldunen egitadea, iñori kalterik egiten ez dautson egitadea.

Bigarrena, gizaldrarena, izelako gizataldea, jentetza! Olinpiada bat balitz be ez zan ainbeste egongo.

Irugarrena, maikideena. Ba arrun-jate baten, lapiko batetik jaten 1.500 norki batu ziran.

Eta berreun zakote geiago eroan ebezan txokoetara. Gustiz, 1.700 pertsona janarituak.

Laugarren marka errekor bat aitatu bear dogu. Zelangoa? Aurretik, zenbatu barik. 10.000 edo 15.000 ogibitarteko lukainka.

Eta nortzuk eratzalleak?

Yurreta'ko kirol taldeak. Ez dauke kirol zelairik. Au dala-ta futbol zelai bat egiteko dirua bear zan eta, egundo-ko indababatza antolatzea erabagi eben.

Yurreta Euzkadi'ko erri teiki bat da baiña. Euskalerrria erakunde gauzetan nagusiena be izaten da.

Emen Euskalerrriko Yurretan elektronikiko robotekin araudipean Japon'en lez bear egiten dakie.

Eta esan dogun lapiko andi orretan indabak bakarrik sartu zituen? Ez gizona. Entzun egizu zenbat janari geiago: Zortzi amabiko porru ogei amabiko lukainka, piper, 50 kilo barazki tomate, 250 kiloko txal bat, txarri bi bakoitza 60 kilokoa. Ganera berakatzak ta zazpi kilo gatz.

Onelangoxeak izan bear leukie Euzkadi'ko jaiak: alaiak, baketsuak.

Jai oneitan zelan ez doguz gogoratuko geure anai gogorkeri-zaleak? Eurak Euzkadi askatuta ta buru-jabe gura leukie. Ori euskotar ta euskaldun zintzo danok. Baiña ori lortzeko ez dogu uste garai onetan gogorkeriz, su-izkilluz, sakastaka ibilli bear dogunik. Alderdi bietatik inguratuen gaitue Laterri bik euren gudaloste ondo eratuakaz. Eta itsuturik ta zoratuta gagozala euron aurka indarkeriz ibilten ikusten dogu.

Erri-aginte, demokrazian ezin leiteke ibilli gogorkeriz geure erriaren eskubideak eskuarteko, berbaldiz, idazkiz, burubide, eragite, uste onez baiño.

LETONA'K

DANOK GARA GUDARI

Job gizajoak bein esan eban gizona dala gudari.

Ondo ekian, begiratuaz, bere gorputz ustelari. Aberats zana, ezer barik dau usteltzen: begira ari. Probatuteko Jaungoiko onak au emon eutson berari.

Guk gizonok nai dogu guztiok zorion izan, danak lez; aman bularra artzen daunandik, ori gure, besterik ez. Ilteko daunak au lortu nai dau, t'asmatuz, dau irri-barrez. Orain ez bada gero bai dala jakiñaz, gauz geu be pozez.

Lurreko danak ezin dau emon egiazko zorionik.

Lurra lurra da, biotza aundi, t'ezin emon ez daukanik. Diruak ezin gorde izango, ezin eroan, bein illik, eriotzea lapurra da-ta... Egi au ondo dakit nik.

Zoriona nai ta beti miñez, au da guztion bizitza; olantxe beti biziko gara etor arte eriotza. Negarrez jaio ta negarrez il, onen bitarte, arantza. Naiz ta zorion apur bat izan, geiena, bizitza latza.

Ames biziak bete eziñik, burrukan gabiltz, gudari. Atsegiña ta neke gogorra, alkarraz burrukalari. Gure ta ezin dira burrukak, olan asarrez dauz sarri. Au da gizonen bizitza txarra: itota ainbat gurari!

Job osatu zan eta geratu lurrean aberatsena, zauri-miñean ager ebana, zintzoki, eroapena. Jauna on-ona, sari emolle izan yakon aundiena, ta Job izan zan eroapenan eredu-maixu onena.



BATUA TA ELERTIA

IDAZLEAREN ASKATASUNA

Idazlea egilea da eta egille lez bere lana egiteko askatasun osoa bear dau eta askatasun ori kentzen edo murrizten jakon neurrian bere jatortasuna be galdu egiten da.

Izkuntza asko, geienak bear ba'da, egiñak, osotuak dira eta olakoetan ez dauko eragozpenik idaz-lana egiten dauanak bere pozak eta kezkek agertzeko, baiña beste izkuntza batzuk, gitxi idatzi dalako, ez dagoz ain egokiro osotuta, eta olakoetan ez dago idazleari bere askatasuna kentzerik. Olakoa dogu gure euskerea, oraindiño osostze-bidean daukagun izkuntza, orregaitik idazle euskaldunak, besteak baiño geiago bear dau askatasun au.

Gaiñera, nor da edo nortzuk dira izkuntza idatzia, oraingo onetan euskera idatzia, aurrera atera bear dabena? Ez iru edo lau jakitun naiz trebe, idazle guztiak baiño. Eta izkuntza bideratzeko idazleak daukon eskubidea kendu-eziña da, erri-eskubide guztiak kendu-eziñak diran lez. Ondo izango da arau batzuk eskintzea, baiña ez bear-tzea.

ERRIAREN ESAERAK

Beste alde batetik gauzea aztertzeke, izkuntza erriarena da eta idazleak be erriarentzat idazten dau, erriak irakurri ta ulertu dagian, eta orrexegaitik erritik artu bear dira esaerak, ez jakitunen ede trebeen eritxietatik. Izkuntzak dauan kodea edo legedia antxiñatik erabilli dau erriak alkar ulertzeko eta ondo bete dau zeregin ori. Guztien berba-bideakaz kode edo araudi ori osotu eta eguneratu egin beharko da, baiña ez iñoz bakoitxak bere aukerara aldatu eta besteai ezarri.

Gramatikarik onenak eta iztegirik onenak, erriaren izketa-bidea agertzen eta beteten dabenak dira: Ez dago eskubiderik erriak beti berba bat erabilli dauan lekuan beste bat sartzeko, asmatua naiz kanpotik ekarria izan, erriak joskera bat darabilenean ez da gramatikalarien zeregiña beste joskera bat agertzea edo goitik bera ezartea.

EUSKALKIEN ABERASTASUNA

Euskereari dagokionez, aberastasan aundia dira euskalkiak. Oin-oiñean antzeko arauak daukez, baita aditza ta itzak, ezbardintasan batzuk arau orreik betetzean agertu arren. Euskalkiak alde batetik eta ez-jakiñentzat, ezbar-diñak dira, baiña beste alde batetik eta barruan diran arauak ondo ezagutzen dabezenentzat antz-antzekoak eta euskalki bata naiz bestea erabilli lei alkar ulertzeko oztopo

larregi barik. Ori batez be bizkaierearen eta gizpukoerearen artean esan lei, alkar ulertzea gaitxago biurtzen da lapurdieraz edo zuberoreaz egiten dauskuenean, baiña gaiztasunak asierakoak izaten dira eta egun batzuk giro orreitako euskaldunakaz igaro ezkeror arin alboratzen dira. Bizkaitarrentzat iparraldeko euskalkiak errezago dira, gaztelera ondo dakiñentzat galiziera eta katalauniera baiño.

ETENAREN ARRISKUA

Gure idazkietan eta gure euskera erabillian bide barria artzen dogunean edo batua erabilten dogunean arrisku aundi batera sartzen dogu gure euskerea, etenarena arriskura.

Etena berba egiten dogunean gurasoen eta seme-alaben artean, etena ikastolan eta kanpoan erabilten dan euskerearen artean, etena euskaldun barri eta zarren artean... Eta eten orrek euskerea gogaikarri eta gorrotagarri biurtzen dau. Au geuk eta oraintxe ikusten dogun gauzea da: Gure ikasleak euskereari gorrotoa artzen asita dagoz eta irratian edo ikusirratian entzuten dan euskerea gero erabilli ezin dan lez, erderara jotzen da etxeetan.

Au bai tamala! Batu kaltegarri ori ikasteko artu diran orduak eta egunak edo atxea non ipiñi ikasteko bear diran orduak, erriak erabilli dauan euskerea lantzen erabilli babilitzaz, beste oillar batek egingo euskun kukurruku gure egun oneitan! Ez zan euskerearen gorrotorik izango, ez zan euskaldunen artean eten kaltegarrikerik agertuko... Gure idazlanak irakurle geiago izango eben eta euskereak aurrerapide ikaragarria izango eban. Gaur naiz batuan idatzi naiz euskalkian idatzi, irakurleak urri daukaguz, liburuak be urri saltzen dira...

ARAZOA OR DAGO

Baiña kalteak kalte eta atzerakuntzak atzerakuntza, arazoa or dago: Izkuntzari buruz eritxiak banatuta, jokalabideak oso ezbar-diñak.

Eta zer egin bear da olako giroan? Norberaren bideari jarraitu, besterenari bakean itzi eta egunen baten bide egokira guztiok sartzeko itxaropena ez galdu.

Baiña gaurko euskaldunak ez gagoz orretarako gertu. Batuak nagusitza aundia lortu dau agintarien eta Euskaltzaindiaren aldetik eta aldizkarietan naiz izparringietan makurkeri asko lortu dau. Errian, osterera, beti euskalduna izan dan errian, geroago eta gorroto geiago jako eta gorroto au aundiagotzen joango da zalantza barik.

Oraintxe daukagu ba, iñoz baiño geiago euskerearen alde lan egin-bearra, batez be idazleak, batuz idatzi nai dauanak jarraitu begi bide orretatik naizta gure ustez kaltegarri izan, eta euskalkietan idatzi nai dabenak be jarritu begie bide ori. Urratu dagiguzan asko irakurteko eta idatzeko bideak. Orixe izango da euskerea aurrera ateratea, baiña, mesedez, euskal-langille guztiak laguntza bardiñak izan dagiezela. Eskari ori askatasunearen izenean egin bearrekoa da.

Batua ez zala sortu elertirako, esan eben okerbide onen irasleak, baiña gero elerti-liburuak batuz idazten asi ziran, zori txarrez. Geiegi ete da orain euskalkien bidetik idatzi nai dabenai be laguntza ori bardin emotea? Dana dala, batuz idatziak iñoz ez dau lortuko elebarrietan euskalkiz idatzitakoaren bizitasunik.

IKARATU BARIK

Euskalki ez-bardiñak eukiteak sarritan ikarea sortzen dausku euskaldunoi eta ori geure arazoa dala ez beste iñorena uste izaten dogu.

Baiña ez da zertan ikaratu. Ori izkuntza guztien arazoa da eta izkuntzak ez dira ilten izkelki asko daukezela. Latiña il egin zala esaten dogu, baiña ez dot uste oso-osoan egia danik, latiña bere izkelkietan bizi da, italeiran, gazteleran, prantzieran, portugal eta galizieran edo katalaneran... eta erroma-antzezko izkuntza oneik alkarregandik urrago dagoz, batzuk beintzat euskalkiak alkarregandik baiño. latiña or bizi da eta euskerea euskalkietan bizi da. Eta euskereak alkar ulertzeko erreztasun berezia dauka euskalkietan.

Zorakeria litzake Erromantzezko izkuntza guztiak bat egin eta latin barri bat sortzea eta zorakeria baita, antzera, euskera batu eta bakar bat sortzea.

Euskerea euskakietan millak urteetan bizi izan da eta gaur alkar ezagutzeko erreztasun barriak ditugunean il egingo ete da ba, orregaitik? Ez. Euskerea ilten ba'da, euskaldunok erderaz egin dogulako izango da.

Idazleak idatzi dagigun ba, bakoitxak nai dauan euskalkian eta naiago dauanak batuz, baiña idatzi dagigun ugari eta ondo, irakurleak atsegiñez irakurri dagien, eta euskerea aurrera joango da, gure elertia aberastu egingo da.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

MOSU EROAK

Eguzkia ba doa mendi ostera;
neu ere bai neure gela apalera
maite kutunena dodanaren billa.
Bertan gure bion eliza umilla.

Oparri aurrean MAITEA minbera,
noizko ete niñoakion urrera.
Ara nintzanean —nekez ia illa—
dizdiz bete yakon aurpegi zurbilla.

Mosu bat emon deust begietan bero;
biotzik biotz yoakun yoran ero
sutuak dakarsku atsedeen betea.

Ez zaidaz, diñost, niganduk alden du,
bekigu gela au biok maite leku.
T'alkar mosu ta mosu ni ta **BAKEA**.

A. BIDAGUREN

ZER

ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETU ZAITE!

ZER

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º - BILBAO-1

EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA GREZI ETA EUSKERAREN BATASUNA (I)

Egun asko ez dirala, idazlan bat argitu dausku D. Emiliano Iturraran Ondarru'ko abade argiak, Bizkai'n bizkaiera beste euskerarik ez dala eta bizkaitarrak bizkaiera mintzatu, landu eta babestu bear dabela esanaz. Baita, badiñosku euskeraren batasunaren arazoaz kezkatuik dagola. Baita gu ere! Baiña D. Emiliano'k eta guk badakigu Euskeraren batasuna zertan dagon. Beste askok ordea ez dabe jakin, eta... "el batua" sortu dauskue!

Euskeraren batasuna oso gauza erreza da. Euskeraren batasuna euskaldun bakoitzak bere euskera ondo jakin eta beste iru euskerak errez ulertzea besterik ez da ba. Eta errez ulertuko dauz beste euskerak berea ondo ezagutzen ba'dau.

* * *

Grezi'ko demokraziaz itzegin genduan beste batean, eta Euskalerriko demokrazia, erkala, Grezi'koa baiño beteagoa eta osoagoa dala esan genduan. Gaur Grezi'ko izkuntzaz eta elerti edo literaturaz mintzatu bear dogu. Tamalez ezin geinke gure elertia aiena baiño ohea danik esan. Grezi zaarreko elertia munduko elertirik bikaiñena bait da.

Izkuntza bakoitzak bere batasuna dau; ezberdiña; bakoitzak berea. Latiñaren batasuna eta grezierarena ez dira berdiñak; ezta euskera eta gaztelerarena ere. "El batua" gazteleraren batasunaren erara pentsatua dago. Batustanoek, "kastellanizatu" eta "españolizatu" egin dabe euskera. Ez dira euskaldunak; "kastellanoak" dira; "españolak".

Gazteleraren eta bere ama latiñaren batasuna, arrikozkor batena bezala, era-batekoa da, ere gogor bat bakerrekoa. Euskerarena ordea, eta Grezi'ko izkuntzarena, ez da erabakarrekoa; laukoia baizik; lau eratakoa.

Egia esan, 16 izkelki izan zituan, 16 dialekto, Grezierak. Eta dialekto aietako bakoitza "subdialeko" edo izkelkizati askotan zatitua zegoan. Elertirako erabilli ziran izkelkiak dira lau: Atik-era, Dorik-era, Eolik-era, eta Jonik-era.

Jende askok ez daki Homero'k Iliada egiteko erabilli zuan greziera eta Aristoteles'ek bere filosofia idazteko, Safo'k bere olerkiak asmatzeko edo Pindaro'k bere "Olim-

pika" k abesteko erabilli zutena, ez dirala berdiñak. Batustanoek beintzat ez zekiten. Bestela ez euskun "el batuarik" sortuko.

Eolik-eraz idatzi eben Alzeo'k, Safo'k, eta Korina'k. Olerkari bikaiñak irurak, batez ere azkeneko bi emakumezkoak.

Eolik-erak, 5 izkelki-zati ebazan: Tesali-era, Arkadi-era, Beozi-era Lokri-era, eta Lesbos-era. Orregaitik, Safo maitagarriak eta Korina pinpiriñak erabilli eben eolik-era ez da berdiña. Korina Beozi'koa bait zan, Safo berriz, (eta baita Alfeo ere), Lesbos ugartekoa.

Dorik-era, Grezi'ren Iparrean, Peloponeso'n, Kreta'n eta Sizili'n mintzaten zan. Izkelki ortan idatzi eben, Teokrito'k eta "pastoril" edo artzain-olerki idazle danak, Siziliko atzerkilariek, eta Pindaro'k, Grazi'ko eta agian mundu guziko lirik-olerki-idazlerik onenak. Eta filosofilari pitagoriko danek.

Jonik-era, Anatoli'ko sarkalde-itxas-ertzeko egoaldean erabilli oi zan; Efeso'n adibidez eta Mileto'n. Idazlerik ezagunenak auk dira: Hipocrates sendalaria, Herodoto edestilaria, eta Homero epik-olerkaria, munduan ederrena eta bikaiñena.

Atik-era, Atenas'en lurraldean itzegiten zan. Iru atik-era dira: "Zarra", (Kristo-aurreko V mendearen azken era artekoa), Tuzidides edestilariak, Eskilo, Sofokles, Euripides tragik-antzerki idazleek, eta Aristofanes komik-antzerki-idazleak erabilli ebena. "Erdi-aldikoa" (V'etik, IV mendearen erdira-artekoa), Jenofonte edestilariak, eta Sokrates ta Platon filosofilariek erabilitakoa, eta "Berria", (IV mendekoa), Eskines eta Demostenes izlariek, Menandro komik-olerkariak, eta Aristoteles filosofilariak landu ebena.

* * *

Izkuntza bakoitzak bere batasun-mota dau. Greziera-ren batasuna zugaitz bizi batena lez, "era-askotakoa-izatea" zan. Batera "bat", eta "askoitz"; berdiña eta ezberdiña; eta orrek ez eutsan matematiketan aberatsa, eta filosofian eta literaturan munduko izkuntzarik aberatsena izatea galerazi. Alderantziz, orretxegaitik izan zan, agian, ain aberatsa.

LATIEGI'TAR BIXENTE

EUSKAL IZLARI TA IDAZLARI BAT GITXI EZAGUTUA. D. ANTONIO AMUNDARAIN ABADEA. BERE JAIOTZATIK EUN URTEURRENEAN (1885-1985)

Ez da ezezagutua, ain zuzen ere, D. Antonio Amundarian, gure artean eta munduko leku askotan bere, Instituto Sekular beten sortzaille da-ta. "Mariaren bitartez Jesusengan Elkarte" (erderaz, Alianza en Jesús por María) da, berak ezarri eban Instituto Sekularra.

Baña D. Antonio Amundarain, Gipuzkoako biotzean, Tolosa aldean, Elduayen'en, jaio zan, "Salas" baserrian. Eta txikitatik, euskeraz otoiak eta kristau ikasbidea ikasi ebazan. Urteak geroago, abade letz bere Gipuzko maitera biurtu zanean, euskeraz, euskera argi ta garbi baten, gipuzko euskera gozo ta musikalean, Jaunaren itza etengabe azaldu eban, ia Gipuzkoako eliz guztietan. Motriku, Zumaia, Andoain, Zarauz, Tolosa, Zumarraga, Usurbil, Lezo eta abarrak, 1911ndik, 1932n arte, entzun eutsoen euskal iztun ospetsu areri. Bere abots ederrez, bere itz gartsuaz, bere euskera garbi ta apaiñez, entzule guztiei jakiñerazten eutsezan kristau egi ederrak, eta batez bere, bere maitasun aundi aundiak: Eukaristian dagoen Jesusentzat eta Jesusen Ama ta gure Ama, Andra Mariaren-tzat maitasuna.

Duda barik, D. Antonio, bere denborako eleiz euskal izlari onenen artean aurkitu zan. Bear ba da, Aliantzak, D. Antonio'aren papere guztiak gordeko ditu. Paper orrein artean, euskerazko sermoirik ez ete da egongo? Benetan, sermoi orrekaz txosten edo bilduma bat egin eta argitaratzea oso interesgarria izango litzake.

D. Antonio, euskal izlari bakarrik? Bai ta musikalaria... Bere biotzari musika eriola, bere maitasun aundi biok kantatzen ebazan: Eukaristian dan. Jesus eta Andra Maria.

Orra or, "Ostian bizi zera", Euskalerriko eleiz guztietan abesti erri errikoia, "Ogi zerutik" legez.

Orra or bere, "Nere begira zaude", "Sakramentuan gorderik zaude" "Jesus beti beti maiteko zaitut nik", "Emen naiz Jesus, zure ondoan" eta abar.

Abesti edo Kantu oneitan, zer politago, zer ederragoa dan, ez dakigu: eresi edo melodija? Letra edo olerkitxo?

Olerkari, ta mistikozko olerkari bat letz agertzen da D. Antonio kantu orreitan. D. Antoniok, bere arimaren arritasuna eraskusten dau. Sagrarioaren aurrean, ordu asko emon ebazan, begira begira, geldi geldi, beti itaun bardiñaz: zelan zagoz or, Jesus, osti txiki txikitan, illunpetan, Zeu, gure Jaun eta Jainkoa? Zergaitik? Zelan ori izan daiteke? Eta bein eta barriro, begiratu, gurtu edo adoratu, ta batez bere, maitatu, bere biotz gartsuaz maitatu...

"Nere begira zaude Jesus, aldarean
maitez lertzen nigana etorri naiean.
Atoz atoz, sar zaitez nere biotzean.

Zer indar dauka expresio orrek: *lertzen, maitez lertzen*. Benetan sentitzen eban D. Antoniok, Jesusen begira-

tzea bere gaiñean. Benetan biztuten zan bere biotza, maitez lertzen egoan Jesusen biotzean!

"Osti txikian emen zaude Jesus ona
Zeru goian bezela Jainko ta gizona..."

Eta zelan bere biotzetik urten da sinismenaren autor-tze bero beroa:

"Jauna nik sinisten det, sinisten det Jauna"

Eta beste estrofa au samurtasunez bete:

"Gaixo daukat biotza nekatuz, au lana!
Erruki billa nator Zugana, oi Jauna!
Osti ortantxe daukat nere osasuna
Jauna gorde nazazu gorde, gorde Jauna!"

Abesti onein berbak, arima mistiko baten dirdirak dira, ziur, eta musika gozo-gozo, bigun-biguna, biotzezko musika.

Zumarragako Antiguako Amari ta Koroen Andra Mariari abesti asko ta ederrak egin eutsezan, Begiratu, adibidez, zelan kantatzen eutson Andra Mariari:

"Beloki mendian zaude Maria
antxiñatik ortxe maitez jarria,
euskaldun guztien izar argia,
maitale garbien zeruko ezitia
zaindu, bai Amatox, Euskalerrria!"

D. Antonio, euskal izlari, musikalaria... eta idazlari bere. Bear ba da, euskeraz idatzi eban lenengo gauza au da: "Antiguako Amaren bederatziturrena", baña batez bere, euskal antzertian idatzi eban.

Bere ekintxoak ez dira oso garrantzitsuak, baña or dagoz, euskal literaturako arlo ez ugaritsuan, euskal antzertian.

Euren elburua, D. Antonio'aren gauza guztietan letz, bat bakarrik: Kristau mezua, kristau bizia, obeto irakatsi ta erakusteko. Orra or, "Bertan goho", Tolosako euskal jaietan saritua. Eta "Larrosarteko arantzar" "Uste diñat" eta "Eginzak on", saritua bere. Guzti orrei, "Argia" aldiskarian artikulua asko batu bear dautzeguz.

Aliantzak, D. Antonio'ren abesti guztiak argitaratu dauz. "Cantos para orar" deitzen da bilduma ori. (Publicaciones A.J.M. 1986) Aliantzak bere, euskal antzerti ekintxo orrek batu ta argitaratuko ba lenz, oso ondo litzake.

Santuen zerrendan bere izena ikusi nai dabe kristau askok. Baña ori jazo aurretik, D. Antonio Amundarain, gure euskera maitiaren langille porrokatuen zerrendan egotea merezi dau, ziur.

OLABARRIA'TAR ANASTASIO'K

LAU URTEKO NEURE IBILLERAK

Bein, Basarri bertsolaria euki genduan geugaz Etxe-
doia'n. Ondarrutarren artean ba-ziran bere adiskide zira-
nak eta ekarri bear ebela-ta ebiltzan beti. Ta lortu eben
baten euren guraria; an euki genduan egun guztian.

Bat bateko bertsorik ez eban jaurti edo beintzat ez naz
gomutaten; baiña alan da guztiz be atsegiñez egon giñan
berari entzuten esan euskuzan milla kontu. Bertso zarrak
be abestu euskuzan. Euren artean, Otaño'ren "Lagunduri-
kan danoi" izenekoa. Orduantxe entzun nituan lenengo
aldiz. Bere doiñua ordurarte sekula entzun barik neukan
eta arrezkero be ez dot entzun; berari Basarri'ri be ez
dautsat entzun bertso orreik abestutean. Ta doiñua artzen
bixkorra ez ba-naz be, betiko buruan geratu jatan eta
orain ainbeste entzuten diran bertsoak, doiñu aregaz abes-
tuten dodaz.

Naiago neban euki ez ba'neu neukan txirringa zarra,
ernegaziñoia emoteko baiño ez zan-da. Danai laga bear!
Ta beti eukan norbaitek joan bearra batera edo bestera.
Eskatzen eustanari betozkorik ipinten ba'neutsan, "anaita-
sun" berbea aitatu eban. Baiña txirringak ezer okerrik
izaten ba'eban, lepoa (bizkarra) jasoten eusten. Txakur-
-txiki batik iñok ez eukan eta arei ataratekorik ez egoan.

Bein, bilbotar gazte batek "ocho" eginda ekarri eustan
aurreko burbillu. Gazte a LIBE antzezlanean mutil txikia
egiten ebana ei zan. Alantxe zan izan be: txiki-txikia. Ogei
urtetik gora izango zituan eta amabi-amalau urteko muti-
lla baiño andiagoa ez zan. Raspa ezizenez ezagutzen gen-
duan.

Bein, uste barik, Zubikarai'tar Augustiñ'en eskutitza
eldu jatan Endaia'tik. Ta barruan argazki bat. Kanjeau
edo trukatako izparkariak ziran. Bera zan bakarrik euskal
idazlea edo euskera idazlea. Egundaren mugea igarota
egozan.

Biamonean, beste baten txirringea artuta joan nin-
tzan beragana. Neurea, orduan be, zerbait atxakiagaz
neukan. Pozik alkar besarkatu genduan eta naibeste kontu
esan. Agintzen eutsena egin bear-da, Bartzelona'ra joate-
ko ustean egozan. Ez zan orduan denpora egokia ara joa-
teko, gudearen amaia gaiñean ikusten zan-da. Ta ez ziren

joan. Urrengo, ordutik illa batzutara, Larresori'ko osatet-
xean ikusi neban ebakuntza eginda egoala.

Itxasu'tik Endaia'rako joan-etorriak larogei kilometro
inguru ditu, ta orduko ibillaldia, piñoi desegokiagaz joan
nintzalako-edo, aztun egin jatan. Ta etxeruntzkoan, azke-
nerako indar barik geratu nintza; eta Ezpeleta'ra eldu nin-
tzanean aurrera joateko gauza ezda, bertan geratu ta ala-
-olako jatetxe baten, apaldu egin bear izan neban. Ezpele-
ta'tik Itxasu'ra bost kilometroko baiño bide andiagoa ez
izan arren (tartean aldaztxu bat eukan) derriorrean egin
bear izan neban apari a, neukan auleriagaz ikusi be ez
neban egiten-da.

Beste bein Donibane Garazi'ra joateko gogoia etorri
jakun eta txirringaz joan giñan iru lagun: Arrizabalaga'tar
Joseba, ondarrutarra bera be, nire lengusuetatik bat, Teo-
doro uste det eta neu. Lengusua ta ni erri aretara sekula
joan barik gengozan.

Joan giñan bada bazkal oste baten eta an denpora
apurra eginda, ba-gentozan. Alako baten, bat-batean ika-
ragarrizko zaratea etorrela atzetik, sentidu genduan. Zer-
bait gaiñera etorkigula ikusi genduan, beste biak biz-
kortu egin eben geroan abiadea; nik barriz, eskumatik
ondo niñoian arren, zaratea be eskuma aldetik etorren-da,
atzera begiratzeko asti barik, oso-osorik ezkerrean biurtu
neban txirringea, baiña zearka niñoiala zerbaitek zapaldu-
ko ninduan bildurrez. Ta itsumustuan egin neban zearka-
ko aregaz bide bazterreko orma txiki edo petrilla jo ta
bidez kanpora jausi nintzan, atxen edo arri andien gaiñera.
Ibaia egoan iru-lau neurkin berako. Jausi ta geratu nintza-
nean jakin neban zarata a zelan izan zan: bultzia etorren
gure eskumatik, bide-zabala jotzen.

Alderdi a ezagutu bagendu, igarriko genduan atzetik
etorrena bultzia zala; baiña burnibiderik egoanik be ez
giñan konturatu, edo konturatu ba'giñan be orduan aztuta
geunkan eta an bultzirik ibili eitekeanik ez jakun bururatu
ta bat-batean geu zapaldu bearrean atzetik sartu jakun
zerbait zaratatsu a, gaiñera etorkigun kamioi andiren bat-
-edo zala iruditu jatan. Jakiña, zaratea, kamioiarena baiño
askotaz andiagoa zan; baiña zer izan eitekean, bada, bidea
betean etorrena?

Bultzi gidariak, gure ikarea ta zirkiñak ikustean, barre be egingo eban.

Geuk be egin genduan lenengoan. Baiña laster joan jakuzan barreak! Jaustean, ebagia egin neba orkatilla ondoan. Ez zan andia; iru zentimetro ingurukoa, baiña bildurtzeko aiña odolek urteten eustan. Sudur zapiagaz aztala estutu eusten, odol-ustu ez neintean.

Albait ariñen zerbait osaketa egitea komeni jatan, baiña ez etorren beribil batik lenengo errira eroan nindeien. Ta errira joan eiteala esan neutsan Joseba'ri ta besterik eziñean taxisa ekarri eiala. Joan zan txirringan eta bereala biurtu zan; andik laster baserri bat ei egoan. Ta berak lepoan artuta eroan ninduan. Etxekoandreak urten euskun eta zinka andi baten ura ipiñi ta izara (maindirea) edo olako zar bat zatituaz, borondaterik andienagaz nire zauriari lenengo osaketea egiten alegindu zan. Garbitu ta lotu eusten zauria ta geratu edo erdi geratu jatan odola. Beraz, nasaitu nintzan.

Ni etxerako bidean ipintea palta zan bakarrik. Ta ez zan erreza izan axe. Min artu ta ordu erdi igaro zan lenengo beribilla agertu zanera. Etxekoandreak berba egin eutsen prantzesez beribillekoai ea Itxasu aldera joiazan eta eroango ete ninduen. Emakume gazte bi ziran, ni baiño zartxuagoak. Erderaz polito ekien eta ixildu barik joan giñan bide guztian. Etxedoia'ko atean laga ninduen.

An geunkan osagilleak, granpakaz josi bear zala esan eustan; eta ez eukala eta ekarri egin bear zirala. Baiña orkatillan markea geratu edo ez, garrantzi gitxiko gauzea zan eta josi barik geratu jatan.

Nik an egin neban urtebetean lagun asko igaro ziran Etxedoia'tik. Geienak betikoak giñan; baiña sartu-urtena be naikoa ibilli zan.

Milla bederatzireun eta ogeta emeretziko uda aldera etorri zan agure batek beratzaz zerbait idaztea merezi dau. Bizkaitarra zan, ez dakit zein alderditakoa. Irurogetambost urte inguru izango zituan. Lepoa apur bat aurrera okertua. Baserri semea izan eitekean baiña baserrian lan asko egiteko, ilustraduegia zan. Ez dakit zer ekian, baiña danetik ulertzen eban itxurea emoten eban. Jakiña, danetik be asko ez, edo obeto esateko, iñundik be asko ez.

Ango elizako edo erriko erlojuak ez eban ordurik joten, Jaungoikoak daki noiztik. Ta berak alakoak lenago be konponduta egoala ta a be ipiñiko ebalta ta asi zan. Bikario ta alkateagaz berba egin eban kontixu. Danak

ondo artu eben bere asmoa zirudianez. Ta bateko serrea ta besteko maillua eskuetan zituala aruntz-onuntz naikoa egin eban baiña dana alperrik; geldi, erlojua. Guk, apur bat zirikatzearren be bai, erloju kontua zelan joian itauntzen geuntsan, eta berak, ez dakit zer eta ba-dakit zer peitu zirala ta ezin eitekeala konpondu erantzun euskun; ta an joan zan aztutzen arazoa.

Idazteko zaletasuna be ba-eukan. Politika internazionalaz asko eukala idatzita esan euskun. Ikusi genduan baten idazten; aurrean izparringia eukan eta andik bere kuadernora aldatzen eban. Endara'n (Endara, JEL alderdiak Baiona'n eukan idazkaritzea zan) alako kuaderno pilloa ei eukan. Eukiko eban ziur. Gauza anditzat eroango zituan eta jan zer egingo eutsen bada, gorde, bakea emoteko!

Bera ez ei zan gu lez ezeri konturatu barik ibiltzen; berak toki barrira joatean, dana aztertzen ei eban, etxeak zelako estilua eukun eta dana.

Alantze izan bear eban, itxurea zanez. Beintzat egun baten (ordurako gudea asita zala uste dot) estu-estu etorri zan Kanbo'tik Arrizabalaga'tar Joseba, erri zaiñ birek, ixilleko polizia birek zeatzago esateko, agure a atxillotuta eukela España'ra bialtzeko asmoz-da. Zer jazoten zan esaten alkatearengana joan zan; baiña ez egoan ezer egiterik bere alde. Geiago ez genduan ikusi zar gizajoa. Bere ibilli bearrak eta bere danari begira egon eta azertu bearrak, txarto pentsau eragin eutsen ertzaiñai eta espiatzat-edo artu eben.

Gudea asi zanean Itxasu'ra etorrita egozan adin andi-ko ixilleko poliziak ziran bizkaitar-zar a kanpora bialdu ebenak.

España'n gudea amaitu zan ezkerro, Ameriketara joatea baiño beste asmorik ez egoan euskaldun gazteen artean. Gutzat ez egoan atorkizunik Prantzia'n eta alderdi onetara etortea iñori ez jakon bururutzen. Ta Europa'ren gaiñera guda andia etorrena ez egoan ezpairik. Orregaitik jendeak arin nai eban zirkin egin. Ta JEL alderdia, gazteen arako bideak zuzentzen asi zan. Geuk be geure izena ta zer lanetakoak giñan emon genduan.

Bi edo iru expediziñoi joan ziran. Etxedoia'tik be iru-lau gazte joan ziran eta danok lagundu geuntsan autobusera eta Agur Jaunak abestuaz agurtu genduzan. Geienak Ameriketara azurrak itxiteko joan ziran, naita orduan asmo ori ez izan. Beraz, benetako agurra izan zan.

GUDALDIAN

Gu lez gudea zala-ta Bidasoa andiko alderdi aretara joan ziran lekeitiar itxasontzi egille arotz batzuk, Murelaga abizenekoa ta beste bat edo bestek, bizi egin bear zan eta euren kontura itxasontzi bi egin zituen: LENBIZIKOA ta BIGARRENA izenekoak. Amabost-ogei tonelada ingurukoak, berrogetamar zaldiko motorrakaz. Eurak egiteko eredu edo modelo lez, Ondarru'ko LAU ANAIK artu eben, orduan Baiona'n zana, Paulo "so-xu"arena. Onek ogetamar zaldiko motorra eukan eta gitxi ibilten zan.

Itxasontzietatik bat, ez dakit LENBIZIKOA ala BIGARRENA, Donibane'koak erosi eben.

Ango jendeak ez ginduzan ondo ikusten. Eliztarren-tzat gorriak giñan, eta gorrientzat, arrantzaleentzat-eta, klerikalak. Baten, itxasontzi a ondora, urpera joan jakela ta beste itxasontzi baten etorri ziran liorrera, lekeitiarrai erositako itxasontziko arrantzaleak. ¡Alakorik! ¡Eguraldi ederretan, ezer okerrik jazo barik, itxasontzia galdu! Errefujiadu guztiok lotsatuta laga ginduzan jazoera arek. ¿Zer esango eben ezin ikusi ginduezan arrantzale areik? ¡Ta eskerrak, iñok bizirik galdu ez eban!

Baiña andik bi edo iru egunera gogorragoa jazo zan. Urpera joan zala esan eben itxasontzia, beste batek ekarri eban kaira. Lazaro'ren biztuerea lakoxea izan zan. ¿Zer jazo zan?

Itxasontzi aren jaubeak edo itxasoan erabillen arrantzaleak ez eben gogokoa kontixu ta galtzea edo ondoratzea asmau eben. Ez dakit zulatu nai izan eben, edo atxak jo eraginda, edo beste nolabait aldendu eragin. Beintzat, itxurea zanez, itxasontzia ibillian ebillela eurak beste itxasontzira salgo egiñaz, laga egin eben, egin eutsenagaz galduko zalakoan. Baiña Jaungoikoak ez eban nai izan olako diabrukeriak ondo urten eian, eta len esan dodan lez, andik bi edo iru egunera, arrantzara joandako Donibane'ko beste itxasontzi batek arkitu eban, bira ta bira oraindik geratu barik.

Itxasontzi a galdu nai izan eben areik lotsa apurra izan ba'lebe, bururik ezin jaso izango eben aldi baten, jazo zanagaz. Ez dakit zelan garbitu eben euren burua.

KAMINAZPI

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKERAZALEAK
1985-86 IKASTAROA

AMAZAZPIGARRENA

BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

EGUNAK: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN
EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

ORDUAK: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

ORDANA: 7.000 peseta.

IZENA EMOTEKO-TOKIA: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2
BILBO.

URRUZTIZKIA 423.53.22

JAUNARTZE-JANZKIA

Gau aretan, Alazne lur-jota aurkitzen zan. Mirentxu, bere alaba bakarra, biaramonean Lenengo Jaunartzea egiteko zan, eta oraindiño ospakizun onetarako jantzirik ez. Guztiz ezeukiak ziran ama-alabak, eta gau aretan euren aberastasun bakarra, arto-uruneko eskukada bat zan, besterik ez, urregio egunerako ozta-ozta talo bat egiteko lain.

Naigabez asperenka, Alazne leiora urreratu, eta aulki baten jesarrita, leio-barrenean besoak ipiñi ebazan. Andik laster nekearen-nekez loak artu eban. Lotan egoala, amesetan igel bat agertu yakon, eta,

— Kro-kro, kro-kro, Alazne —esan eutsan—, Basozabal'go alargun ori, zer dala orren itunik egoteko...?

— Ai, igel, igeltxu maite ori...! Biar bertan Mirentxu lenengo Jaunartzea egiteko da, eta jai andi orretarako janzkirik ez, au bai nire samin andia...!

— Aizu, Alazne, gaur Alkatenera alabearentzat sedazko paper zuri baten bilduta, Lenengo Jaunartzea egiteko, janzki bikain-bikaiña eldu da, eta paper ori kartoizko kutxa baten barruan sastegian idoroko dozu. Zoaz aren billa, eta josi egizu Mirentxu'k bear dauan janzkia.

— Baiña nire igeltxu maite ori, orretarako, ari, titare, jostorraz eta artaziak bear dodaz, eta nik ez daukat orreitakorik. Gaiñera, botoiak eta maukak eta ta jantzi-barrenak edertzeko mendelik ez...

— Ez larritu, Alazne. Sastegiko paperaren ondoan urretx baten eskola dago, eta auxe titaretzat erabilliko dozu. Gero, zotz-zati bikaz artaziak egingo dozuz, eta etxerakoan, Abadenea'ko baratetik idar-leka bat artuko dozu.

— Eta aria ta jostorratza...?

— Ler-osto edo piñu-orratz batz soñekoa josiko dozu. Ariari buruz ez larritu, amaraun batek bear dozuna emongo dautsu-ta.

— Eta janzkia edertzeko mendela...?

— Au azkenerako laga egizu, eta zeozer otuko yatzu...

Itxartu zanean, eta Mirentxu lotan egoala, Alazne etxetik urten eta sastegira joan zan. Emen, agindutako sedazko papera idoro eban, baita urretx-oskola be. Etxerakoan, Abadenean idar-lekea jaso eban, eta erriko enparantzan zear joiala, zotz-zatiak eta lerrostoia.

Etxera eldu zanean, sedazko papera mai-gaiñean jarrita, artaziak egin eta lerrostoari begia zulotu eutsan. Alazne'k, baiña, ez ekian jantziari zelan eldu, aririk ez eban-eta. Orduan gau betean igelaren kro-kroa aditu zan barrero...

Leiora urreratu zan, eta igelaren eresia aditzen zala, leioko goikaldean amarau batek ari-me-meaz sare bat euntzen ziarduala ikusirik, orduantxe Alazne'k ulertu eban. Non a baiño ari bikaiñagorik...?

Eta amarauak eundu-ala, ari orregaz Alazne'k artaziakaz taiututako janzkia josten eban, eta eleizako joaleak gabeko amabiak jo abazanean, soñeko josita egoan. Orduan idar-lekea edegi, eta barruko bost garau atararik, bost botoi orlegi, eder, janzki-kolkoan josi ebazan. Baiña soñekoa bear zan lez amaitzeko, mauka ta gonabarrenetan zulaketeak egin bear ebazan, baiña zelan...?

Olan kezkatu egin egoala, burutapen bat etorri yakon... Bai, suetea piztutako illenti batz zulaketea egingo leuke... Jagi, eta suetetik, bear izandako illentia artuta, zulaketea egiteko gertatu zan. Ezin baiña... eskuak dardarikatzen yakozan, eta bildur zan janzkia ondatu ekion...

Alazne leioara joan zan barrero, eta,

— Igel, igeltxu neuria —esan eban negarrez—, ezin dot, baiña bear dan egalun bikaiña egin, ikara bizitan nagotzuta...

Berba oneik esanda, saguzaar bat leiotik sartu zan, eta illentia aboan artuta, iru zulaketa-lan ederreko mendelak paperan eratu ebazan, mauka baxotxean bana, eta irugarrena gonako beekaldean.

Janzkia amaituta geratu zan mai-gaiñean, baiña bere alabatxuak eraski bat bear eban, burestuna, ain zuzen be. Baiña Alazne'k ez ekian zerez ezta zelan egin be, eta negarrez leiora biurtu zan ostera, auxe iñoala:

— Igel, igeltxu neuria... Mirentxu'k burestuna bear izango dau, eta nik ez dakit nondik atarako dodan...!

— Ez zaitex larritu, Alazne, ore-maian eskukada arto-uruna dozu, eta onen bidez burestuna egin dagikezu.

— Ai, igel, igeltxu neuria, eskukada urun ori biarko janaria atontzeko da. Erestuna orregaz egiten ba'dot, zerez janarituko gara biar...?

— Egin neuk agindutakoa, eta ez yatzu damutuko, Alazne.

Orduan, ore-maira joanda, uruna ta uraz alargunak burestun bat taiutu eban, eta gero talo-burdiñean txingarren gaiñean ipiñi eban. Egosi zanean, leio-barrenean egoan janzki-ondoan jarri eban, eta gero, aurpegia malkoz bustita lotan zirauan alabatxuari apa-laztan bat emonik, oeratu zan.

Gau osoan zear igelak abesten iraun eban, eta goizaldean urreratzen zala, janzkia iñontzeko tantotxu garbia-

IPUINAK

kaz estaldu zan, eta egunsentia agertzeko zorian zala, leiopeko arkakaratsari erpin-erpiñean, larrosa gorri ederra sortu yakon, eta paperezko jantzia usain zoragarriaz laz-tandu eban.

Biaramonean, eguzkia leiotik parrastaka sartzen zala, Mirentxu iratzarri zan, eta janzkia ikusirik,

— Ama, amatxu —didar egin eban—, nor ekarriko eban soiñeko eder au...? Ez dot egundo be olako janzki ederrik ikusi. Ama, zerutik ekarritakoa izango ete...?

Zuzen egoan Mirentxu, eta Alazne leiora urreratu zanean, arritasunezko didar bat jaurtiki eban.

Izan be, aurreko gabea josiriko paperezko janzkia, ziriko edo sedazkoa biurtu izan zan. Amaraun-ariz egiñiko orrazkadak zidarrezko ari me-meak eta jositako bost idarrak esmeralezko bitxiak ziran, eta mauka ta gona-barrenak egalun bikain-bikaiñak. Gabeari isuritako iñon-tzezko tantotxuak diamanteak biurtuta dizdir egiten eban, eta gabea sortu zan lorearen usain-laztanak nonai barreiatzen ziran.

Zorionezko oiu bat jaurtita, Mirentxu soiñezko zora-garriaz jantzi zan, eta burestuna ikustean,

— Ama, burestun ori —esan eutsan—, niretzat izango al-da...? Aizu, ama, urrezkoa emoten dau...

Egia zan. Arto-urunaz egiñiko burestuna urrezkoa zan, eta goizeko argipean eguzki bizi bat zirudian. Buruan

ipiñita gero, ama-alabak kalera urten, eta eleizara abiatu ziran, Bidean zear joiatzala, adar batetik zorotuta bai'li-tzan, txindor bat abesten asi zan onetaraxe:

— Mirentxu benetako bitxia da, eta darabillan janzkia, zerukoa. Aingeru batek igel biurturik, soiñeko ori egiteko agindu dau, txio... txio... txio...! Baiña janzkiaren benetako egillea, ama baten maitasuna izan da, txio... txio... txio...

Egun zoragarria billakatu zan, eta Mirentxu'k Jauna lenengoz artzen ebanean, arima-barruan zeozer eder-ederra oartu eban, eta Alazne'ri zorionezko negarrari eutsi eziñik, aurpegian beera malakoak isuri yakozan.

Ama-alabak etxera sartu ziranean, arrituta geratu ziran. Mai-erdian intxaur-saltzaz inguratuta arrainkari bat egoan, eta mai-azkentzat, urretx-opil, ezti ta basaran gozoak jan ebezan. Alazne ta Mirentxu eleizean egozala, igelak aginduriko katamixar-talde batek maia atondu izan eban.

Bazkaldu bitartean, igel baten kro-kro eresintsuak aditu ziran, eta isildu zanean, idoi-ondotik aingeru bat zerura biurtu zan.

Egun aretako gomutagarritzat, ama-alabai urrezko erestuna geratu yakon, eta aurrerantzean ez eban bearriznik ezagutuko.

ZUBIRI'TAR INAKI

BOTOIAK JOSI

Zoritxarrean dago
bakarrik dagona,
baña pozik bizi da
badau lagun ona.

Paradisuan Jaunak
Adani emontson,
pozteko, emaztea,
t'egoan zorion.

Mutilzarra bakarrik
bizi zan etxean.
Garbitasunik eta
tayurik an etzan.

Ez egola andrarik
garbi agiri zan.
Bere bear-izana
ager zan danean.

Andrabako etxea
utsa —da esana—
an ikusko dozue
ankaz-gora dana.

Bera lotsaz bizi zan.
Ango ganorea!
Ta erabagi eban
laster ezkontzea.

Baserrian daukogu
beste bat esana:
“Bere sasoiari egin
egin bear dana.

Ezkondutaldea,
arin, al dozunan;
semea egingo da
berak nai daunean”.

Mutilla ezkondu zan
neska ederragaz,
buru argiko eta
gramatikadunaz.

Gero mutil artean
zer-esan asko zan.
Bakotxak eritxia
agertu nai eban.

“Botoiak orain dozak
josita guztiak;
andregaz, bai, ondo”!
Ta erantzun berak:

“Emazteak, ezkondu,
biaramonean,
botoiak zelan josi
irakatsi eustan”.

MATAI ARGINTXONA

EUSKERA ABERASTU

Esaera-zaar oneik GAROA liburutik artuta dagoz.

- “Beltz guztiak ez dira ikatzak, ezta zuri guztiak iriñak” (40).
 “Goiz guztiak dute beren arratsaldea”.
 “Umearen zentzuna, etxean entzuna” (56).
 “Lengo lepotik burua” (83). (No cambiar de pensar).
 “Urruneko lapikoa urrez, etxera orduko lurrez” (100). (No es oro todo lo que reluce).
 “Betiko illargi beterik ez dago” (105).
 “Bakoitza bere zoroak bizi du” (105). (Cada loco con su tema).
 “Non dan nere gogo, an nere zangoa” (106).
 “Bein askok, beti egiten du” (107).
 “Urdaia eta ardoa urtekoa, adiskidea urtetakoa” (157).

“Etxea beteko gizona da” (174). (Es un hombre sin tacha).

- “Azak bere kirtena, eta aritzak bere ariko ezpala” (192).
 “Bakoitzak bere labeari su eman” (198). (Cada cual lleva el agua a su molino).
 “Bear zaitut eta geldi zaite, bear ez zaitut eta ken zaitte” (239).
 “Oiñezkorik nai ez, eta zaldizkorik etorri ez” (207).
 “Mingain gabeko txintxarria, sasia usteltzen da” (245).
 “Gogozko tokian aldaparik ez” (246).
 “Auzoa illetan, eta gu opilletan” (248).
 “Begietatik urruti, ez da biotza negarti” (258).

GOIKOETXEA INAKI

KOMIKEN SARIKETEAK

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k marralarientzat eta komika gai dala sariketea eratzea erabagi dau azilaren 7'an egindako batzarrean, KILI-KILI aldizkariaren Zuzendariak eskiñitako eritxiak entzun ondoren.

Sariketa onetarako oiñarri-arauak oneik izango dira:

- 1.^a Amalau urtetik 25'eraiko margolari edo orretarako zaleak diranak dauke eskubidea sariketa onetara sartzeko.
- 2.^a Sariketa onetara aurkeztu bear dana komika izango da, idazkia ta marrazkiak.
- 3.^a Komika marralariak asmaurikoa eta iñon agertubakoa izan bearko da.
- 4.^a Idazkia euskerazkoa izango da eta euskerea Bizkaiko ta aldizkari onetan ZER aldizkarian erabilten idazkeraz idatzia. Idazkiaren muiña bera be euskal girokoa.
- 5.^a Komikaren neurria, KILI-KILI aldizkarian orribaten naiz bitan sartzeko lakoa.
- 6.^a Irakurleak umeak eta gaztetxuak izango dirala jakiñik, irudiak naiz idazkia giro orretarako egoikiak izango dira.
- 7.^a Lanen aurkezpena EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren idazgoan egin bearko da. Larreategi'tar Kolon kalean, bigarren etxe-mailan, eskuma-aldean.

8.^a Maikoak izendatzeko eskubidea EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k izango dau eta onein erabakia onartu-bearrekoa izango da.

9.^a Lanak aurkezteko epea 1986'ko otsaillean (zezeillean), 10n.egunean amaitzen da eta il onen azkenarako Epai-Maikoak euren epaia emongo dabe.

10.^a Epai-Maikoen erabakia ZER Aldizkariak eta DEIA egunkariak agertuko dabe.

11.^a Aurkeztuko diran lanak bear dan beste onak izan ezik, Epai-Maikoen ustez, Sariketa utsik geratu leiteke.

12.^a Lan Sarituen jabetza EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ri dagokio eta KILI KILI Aldizkarian argitaratuko dira.

13.^a Sariak iru izango dira: 1.^a 50.000 pezeta; 2.^a 30.000 pezeta eta irugarrena 20.000 pezeta.

14.^a Lan sarituak irabazleak berak egiñak dirala ziurtatzeko, iru irabazleak Epai-Maikoen aurrean euren trebetasuna agertu beharko dabe marrazkian bat bertan egiñaz.

15.^a Lanak karta-azal baten barruan eta izen-orde batez aurkeztuko dira eta lanakaz batera beste karta-azal txiki baten izen-ordea ta izen-abizenak zuzenbideagaz batera ekarriko dira.

EUSKERAZALEAK

ZAR

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoiari, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1


Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoiari, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.